



2013ko martxoan Frantziako Saint Denis hirian sortu zen *Borroken eta Elkartasunaren Nazioarteko Sare Sindikala*, erakunde ezberdinek urteetan ehundu harreman eta lanaren emaitza da.

Batzen gaituzten ideia, grina eta praktika sindikalen inguruan bildu gara Amerika, Europa, Afrika zein Asiako korrante eta tendentzia ezberdinetako erakunde sindikalak. Bi urte berantago, 2015eko ekainan, Brasileko Campinas-en antolatu nazioarteko topaketetan ohartu gara gure sarearen eraikuntzan elkarrekin eman urratsetaz. Izan ere migrazioa, errepresioa, autogestioa eta emazteen eskubideen inguruan ezatabaidatzeaz gain, hainbat erabaki ere hartu ditugu.

*Borroken eta Elkartasunaren Nazioarteko Sare Sindikala* osatzen duten egitura ezberdinak bat datoz sistema kapitalistak eta haren « krisiek » dituzten ondorioen deitoratzeko. Elkarrekin lan egin nahi dugu eraso antisozialei buru egiteko, eskubide berrien lortzeko, sindikalismoa indartuz kapitalismoa erauzteko, hortaz sare honen zabaltzeko eta eraginkorrago egiteko.

Zapalkuntza ororen kontra eraginkorki borrokatzeko (sexismoa, arrazakeria, homofobia, xenofobia), konbentzituta gaude borroka sindikala, antikapitalista, ekologista, autogestio eta demokratikoan oinarritua den sindikatuen sare baten beharraz.

Arrazoi guzti horiek direla eta, jakinarazten dizuegu Sarearen III. Nazioarteko topaketak antolatzen ditugula 2018ko urtarrilaren 25etik 28ra Madrilan.

Topaketa horiek guztion artean antolatuko ditugu. Garraio, otordu eta aterpetze kontuetaz haratago mamia zein izango den elkarrekin erabakiko dugu.

Zein gairi buruz ezatabaidatuko dugun erabakitzeko, abiatuntu gisa proposatzen dizuegu Campinasen adostu genuen testuaren arrahartzea (ikus gunea : [www.laboursolidarity.org](http://www.laboursolidarity.org)).

Ondorioz, halabeharrezko migrazioen gaiaren inguruan burutu genitzaizkeen ekintza baliagarriak eta analisiak sakondu beharko ditugu.

Autogestioaren kontzeptua eta honen praktikara eramatea ere eztabaidagai izanen da.

Baldin eta errepresioak jotzen bagaitu, gure kideen defentsan gure botza argiago eta ozenago entzunarazteko, komunikatzeko tresna batzuez jabetu beharko dugu.

Proposatzen dugu topaketa horretan egun bat mundu guztiko emazteek egunerokoan jasaiten dituzten bazterketa eta gehiegikeriei eskaintzea, LGBT pertsonak pairatzen dutena ahantzi gabe. Hari beretik, munduan gaindi berdintasunean oinarritzen diren esperientzien berri emanen dugu.

Bosgarren lan ardatz gisa kolonialismoa eta honen ondorien gaia jorratuko genuke.

Hauek, eta zuek proposaturiko beste hainbat puntu ardatz harturik, antolatuko ditugu topaketak.

Azpiegitarari dagokionez, gauzak behar bezala antolatzeko gisan, ondoko asteetan, ahalik eta lasterren bete eta itzuli beharko duzuen fitxa bat helaraziko dizuegu.

<http://www.laboursolidarity.org/Appel-du-Reseau-international-de>